

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	AIRE ZABALEKO ZULAKETA-EKIPAMENDUEN MANTENTZE-LANAK EGITEA	Iraupena	50
		Berariazkoa	
Kodea	UF1149		
Lanbide-arloa	ERAUZKETA-INDUSTRIAK		
Lanbide-eremua	Meataritza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Lehergai bidezko aire zabaleko indusketa	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Aire zabaleko zulaketak	Iraupena	240
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Aire zabaleko zulaketaren prestaketa eta oinarriak	Iraupena	50
	Aire zabaleko eskuzko zulaketa.	Iraupena	50
	Kokapena eta aire zabaleko zulaketa mekanikoa		90

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1378_2 AIRE ZABALEKO ZULAKETAK EGITEA gaitasun-ataleko LB5 lanbide-burutzapenarekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Eskuzko zulagailuaren eta zulaketa-ekipamenduaren lehen mailako mantentze-eragiketak aplikatzea, makinaren mantentze-lanei buruzko eskuliburuaren argibideei jarraituz, eta segurtasuneko barne-xedapenen arabera.

E1.1 Makinen ezaugarri teknikoak deskribatzea, osagai nagusiak eta elementu mekanikoak, elektrikoak, oleohidraulikoak eta pneumatikoak identifikatuz.

E1.2 Mantentze-lanei buruzko eskuliburuaren argibideak interpretatzea, bere eskumeneko lehen mailako mantentze-eragiketak identifikatuz eta makina geldirik eta/edo deskonektatuta dagoela egin behar direnak adieraziz.

E1.3 Zulagailuari dagokionez, interpretatzea erregai-adierazleak, bateria-kargaren maila, iragazkiak, olio- eta hozgarri-mailak, koipeztatze-puntuak eta bestelakoak, makinaren mantentze-lanei buruzko eskuliburuaren barnean hartuta daudenak.

E1.4 Makina koipeztatzeko jarraitu beharreko prozedura deskribatzea, koipeztatze-eragiketa eskuzkoa, automatikoa edo zentralizatua den bereiziz.

E1.5 Erabili beharreko olio-motak (lubrifikatzaileak eta hidraulikoak) eta koipe-motak bereiztea, propietateak eta funtzioak adieraziz.

E1.6 Matxura ohikoena, horien kausak eta kasu bakoitzean jarduteko prozedura identifikatzea, gidatze edo manipulazio seguruari eragiten dieten eta/edo zulagailua geldiaraztea edo matxuratzea eragin dezaketen eta berehala konpontzeko jakinarazi behar diren anomaliak adieraziz.

E1.7 Zulaketa-ekipamendua garbitzeko prozesua deskribatzea.

E1.8 Zulagailuaren lehen mailako mantentze-lanetan:

- Egin beharreko eragiketak interpretatzea, mantentze-lanei buruzko eskuliburuaren adierazten denaren arabera.
- Olio-, hozgarri- eta erregai-maila guztiak berrikustea.
- Gutxienez behera dauden mailak substantzia egokiarekin betetzea, zehazki, makinaren mantentze-lanei buruzko eskuliburuaren eta prebentzioko mantentze-lanei buruzko fitxan agertzen den moduan.
- Iragazkiak garbitzea eta/edo aldatzea.
- Makina koipeztatzea edota koipe-tanga betetzea, koipeztatze automatiko zentralizatuaren kasuan.
- Baterien elektrolito-maila egiaztatzea, beharrezkoa izanez gero, dagokion maila lortu arte hornituz.
- Makinaren mantentze prebentiboko fitxa behar bezala betetzea eta egindako eragiketak adieraztea.
- Ekipamendua garbitzea.

E1.9 Kasu praktiko batean, zulagailuak anomaliak ditu; honako lan hauek egin behar dira:

- Anomaliak detektatzea.
- Anomaliaren arabera, horren kausa posibleak zehaztea.
- Konponketa bere eskumenaren barruan dagoen edo jakinarazi egin behar den zehaztea.
- Bere erantzukizun-mailari dagozkion mantentze-eragiketak egitea.
- Konpondu ostean, ekipamendua behar bezala dabilela egiaztatzea.

Edukiak:

1. Ekipamendu mekanikoen, elektrikoaren, hidraulikoen eta pneumatikoen mantentze-lanak egitea.

- Oinarrizko mekanika:
 - Kontzeptuak.

- Definizioak.
- Unitateak.
- Potentzia.
- Indar momentua.
- Momentuak.
- Mugimendua transmititzeko mekanismoak: engranajeak eta akoplamentuak.
- Hidraulika-printzipioak:
 - Oinarrizko osagaiak: ponpa hidraulikoak, tangak, iragazkiak, balbula hidraulikoak, zilindro hidraulikoak.
 - Sistema hidraulikoen ezaugarriak eta abantailak.
 - Fluido hidraulikoak.
 - Pneumatika-printzipioak.
 - Oinarrizko osagaiak: konpresoreak, balbulak, osagarria eta lineako koipeztargailuak.
- Elektrizitate-funtsak:
 - Oinarrizko kontzeptuak.
 - Definizioak.
 - Oinarrizko zirkuitu elektrikoa: bateria, abiatze-motorra, eteteko giltza, etengailuak, disjuntoreak, kableak, sorgailua, kontrol-tresnak.
- Lubrifikazio-funtsak:
 - Marruskadura.
 - Gainazalaren egoera.
 - Olio- eta koipe-motak.

2. Aire zabaleko zulaketa-ekipamenduen lehen mailako mantentze-lanak egitea.

- Mantentze-lanetarako eskuliburuak.
- Operadorearen eskumenekoak diren mantentze-eragiketak.
- Geldirik eta/edo deskonektatuta dagoen makinarako eragiketak.
- Galeren eta ihesen azterketa.
- Higadura eta hausturak.
- Mailen egiaztapena.
- Tangak berriz betetzea.
- Iragazkiak: garbiketa eta aldaketa.
- Koipeztaketa.
- Ekipamenduen eta osagaien garbiketa.
- Translazio-sistema:
 - Beldar-kateak tenkatzea.
 - Pneumatikoak berrikustea.
- Matxura nagusiak:
 - Kausak.
 - Jardun-prozedura.
 - Konponketak.
- Makina gelditzea matxurengatik:
 - Seinalizazioa.
 - Komunikazioa.
- Mantentze-lanen fitxak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Lehergai bidezko aire zabaleko indusketa